

ARAZO EGOERA

ZAINDU DEZAGUN BIODIBERTSITATEA

ARLOA: Biologia, Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Etika, Euskara

MAILA: DBH osoa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Beheko artikulua ren lehen atala irakurri dugu prentsan. ([osorik](#))

Krisialdi sozioekologikoaren ebidentziak

2019/09/01 Pascual García de Azilu, Unai - Klima eta Natur Ingurunea / Basque Centre for Climate Change | Zafra Calvo, Noelia - Aldaketa Globala eta Garapen Sostengarriko doktorea Basque Centre for Climate Change Iturria: Elhuyar aldizkaria

EKOLOGIA ETIKA KLIMATOLOGIA INGURUMENA

Nazio Batuen IPBES plataforma zientifiko arauemaileak bere azken txostenean adierazi du milioi bat espezie galtzeko zorian daudela planetan; zortitik bat. Habitaten galera dago biodibertsitatearen galeraren oinarrian, Lurraren azaleraren % 75 aldatu baitugu jada gizakiok kolpeka, deforestazioz, nekazaritza intentsiboz, lurra urbanizatuz, krisialdi klimatikoa eraginez... Munduko zingiren % 80 eta baso-azaleraren % 32 suntsitu dugu. Ondorioa: espezieen % 20 desagertu da 1900etik hona, eta beste % 13 desagertu daitezke datozen urteotan. Bitartean, munduko populazioa bikoiztu egin da; barne-produktu gordin globala, laukoiztu; eta nazioarteko merkataritza, produktuak munduko edozein herrialdetara eramatea edo handik ekartzea sustatzen duen hori, hamar aldiz handitu.

Hazkunde ekonomikoaren dogma albo batera utzi behar dela dio txostenak, sistema ekonomiko jasangarri bat izan behar dugula helburu. Baina zein dira krisialdi sozioekologiko horren azpian dauden arrazoi sozioekonomikoak? Zer politika jarri beharko lirateke abian? Eta, agian garrantzitsuena, nola egiten da hori? Ongizatea sakrifikatu beharko dugu?

Galdera horiei erantzuteko eskatu diegu Unai Pascual Garcia de Azilu ekonomialariari eta Noelia Zafra Calvo ingurumen-zientzialariari. Biak, Basque Centre for Climate Change-ko ikertzaileak.

Artikulu horren arabera, badirudi arazo larriak ditugula, bai ingurumen ikuspegitik eta baita ikuspegi sozioekonomikotik ere. Aldaketa baten beharra nabarmena dela dirudi. Horregatik, gizarteak ezagutu eta baloratu egin behar du natur ondarea, eta ahal duen guztia egin behar du hurrengo belaunaldiei egoera onean uzteko.

ARAZOA

Gure agintariak, zenbait kasutan, ez dituzte sistema jasangarri bat eraikitzeko erabakiak hartzen. Adituek diote jada berandu gabiltzala. Guk, geure txikitasunetik, asko egin dezakegu gizartea eta sistema eraldatzeko.

Horrenbestez, egun daukagun egoera ikertuko dugu, hobetzeko zer egin dezakegun hausnartuko dugu, eta, gizartearen parte garenez, soluziorako proposamen bat diseinatuko dugu, mundu ekitatibo, solidario eta jasangarri bat eraikitzeko.

Gure lurralde administrazioen jokabidea aldarazteko gai izango al gara? Proposamen bat egingo al diegu? Goazen planeta salbatzera!

XEDEA

Herriko edo eskualdeko ondare naturalaren egoera aztertuz, hura zaintzeko ekintzen proposamenak egitea udal edo lurralde erakundeetara bidaltzeko. Horrela, egun dauzkagun ohituren inguruko hausnarketa eginez, sistema eraldatzeko irizpideak ezarriko dira.

HELBURUAK

- Herriko/eskualdeko natur ondarearen egoera identifikatzea (espezieak, habitatak...)
- Herriko/eskualdeko habitatak eta biodibertsitatea hobetzeko proposamenak egitea.
- Herriko/eskualdeko eremu zaugarrienak identifikatzea, mapan kokatzea eta leku horiek babesteko neurriak hartzea.
- Gizakiaren ekintzek zein gizarte arazo eta ingurumen arazo sortzen dituzten identifikatzea eta horretaz kontziente izatea.
- Kontsumo ohiturek gizartean zein eragin sortzen dituen ezagutzea.
- Mundu mailako arazo nagusiak identifikatzea eta geuk arazo horietan daukagun ardura ezagutzea.
- Natur ondarea babesteko lanean diharduten erakunde eta elkarteak ezagutzea.
- Espiritu kritikoa eta mundu hobe bat sortzeko grina garatzea.
- Gizarte honen parte aktibo sentitzea.
- Ondarea ezagutu eta zaintzeko beharraz kontzientziatzea.

ATAZA

Lurralde administrazioari bidaltzeko proposamena sortuko dugu, zeinetan egun daukagun natur ingurunearen egoeraren berri emango dugun, egoera hobetzeko

neurriak proposatuko diren eta horrek guztiak sortuko dituen onuren berri emango zaien.

JARRAIBIDEAK

- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoak ikusi** gaian murgiltzeko.
- Arazo egoera aurkeztu ondoren, ikasleak 3-4ko taldetan banatuko dira. Lantalde bakoitzak **lan ildo bati helduko** dio, eta gero beste taldeei horren berri emango die. Lan ildo posibleak:
 - Herriko/eskualdeko natur ondarea ondo kontserbaturik al dago? Zer egoeratan daude basoak, errekak, naturguneak, zaborra, kutsadura...? (Baliabidea: Aralar mapak)
 - Zein animalia espezie galdu ditugu herri/eskualde mailan azken urteetan? Zein espezie daude egoera kaxkarrean? (Baliabideen atalean)
 - Mundu mailan non daude arrisku nagusiak? Zein dira?
 - Kontsumo ohitura jasangarriak al ditugu? Nola eragiten dute gure ohiturek maila globalean.
 - Zein erakundek edo elkartek egiten dute lan planeta hobe baten alde, herri mailan zein mundu mailan? Zein eginkizun dute? (Baliabideen atalean)
- Behin egoera zein den aztertu ondoren, talde bakoitzak gainontzeko ikasleei **informazioa partekatuko** die, eta gai bakoitzaren inguruan egoera hobetzeko proposamenen ideia jasa bat egingo da.
- **Eztabaida talde handian.**
 - Kontsumo ohiturei erreparatuta, euskaldunok 2,2 planeta beharko omen genituzke orain arteko erritmoan bizitzen jarraitzeko. Horrek zer esan nahi du?
 - Garbi dago gaur egun daukagun sistema kapitalistak zenbait gabezia dituela, eta gazteenen etorkizuna zalantzan jartzen duela. Horrenbestez, zein sistema da egokiena? Irakasleak beharrezko ikusten badu, sistema ezberdinen inguruan informatzeko tarte bat har daiteke.

Naturan hezten

- Behin ideia jasa eginda, eta eztabaida amaitu ostean, administrazioari bidaltzeko **dokumentua prestatu**ko da. Dokumentuak izan beharko lituzken gutxieneko edukiak:
 - Egungo egoeraren deskribapena.
 - Aldatzeko beharraren arrazonamendua.
 - Habitaten egoera hobetzeko neurriak.
 - Norbanakoen eguneroko ohituren inguruko neurriak.
 - Neurri horiek maila globalean izango luketen eragina.
 - Ondorioak.
- Txosten horretan zenbait argazki gehitu daitezke, horren harira. **Ikasleek natura eta haren elementuak ezagut eta maita ditzaten, ezinbestekotzat jotzen dugu arazo egoera bakoitzaren ostean gaiarekin erlazioa duen irteera bat egitea.** Irteera horretan, babesa behar duten natur eremu garrantzitsuak ezagut daitezke, edo, bestela, gizakiaren eragina agerikoa den puntu beltzak identifika daitezke.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).
- **Gutuna bidali.**

OHARRA

DBHko bigarren ziklorako egokiagoa den arren, lehen zikloan ere egin daiteke oinarrizko maila batean.